

2009an industri jarduera euskal eskualde guztietan jaitsi zen

Gutxienik, Arabako Errioxan, Arratia-Nerbioin eta Tolosaldean murriztu zen

Euskal AEko industri jarduera: 2009an, erauzketa eta manufaktura industrien ekoiztako balio erantsia euskal eskualde guztietan jaitsi zen, Eustaten datuen arabera. Jaitsierak ezberdinak dira han eta hemen.

Arabian batez besteko jaitsiera %23,8 izan zen. Handienak, Gorbeia inguruetan (%-34,5) eta Kantauri arabarrean (%-32,4). Gutxienik, Arabako Errioxan (%-11,5) eta Arabako mendialdean (%-11,6).

Bizkaian, batez bestekoa %-21,6. Areago jaitsi ziren Bilbo handia (%-21,9) eta Durangaldea (%-28,3). Lau eskualdetan %15 ingurukoa izan zen jaitsiera: Enkarterriak, Gernika-Bermeo, Markina-Ondarroa eta Plentzia-Mungia. Balio erantsiaren jaitsierarik txikiena Arratia-Nerbioin, %-6,4.

Gipuzkoan batez beste %22,5 jaitsi zen. Horren gainetik Goierri (%-26,2), Urola-Kosta (%-28,5) eta Deba Goiena (%-24,0). %22 inguru Deba Barrena eta Donostia jaitsi ziren. Bidasoa Barrenean %-16,9 eta Tolosaldean %-8,7.

Langile okupatuetan, jaitsierak denetan: %-8,4 Araban, eta %-10,2 Bizkaian eta Gipuzkoan.

Arabian lanpostu-galerarik txikiena Mendialdean izan da (%-6,0), baina oso munta txikia du eskualdeak Arabako industrian. Ibarretan %6,9 jaitsi da eta Kantaurin %7,4. Jaitsierarik handiena Gorbeiko inguruetan, %-10,9.

Bizkaian jaitsierarik txikiena Enkarterrietan (%-5,8), baina lurralde osoko industria enpleguaren %2 besterik ez da. Batez bestekoaren azpitik jaitsi dira Plentzia-Murgia (%-6,0), Arratia-Nerbioi (%-8,4) eta Gernika-Bermeo (%-9,5). Bilbo handia batez bestekoan jaitsi zen (%-10,2), eta gainetik Markina-Ondarroa (%-11,2) eta Durangaldea (%-12,1).

Gipuzkoako bost eskualdetan enplegua lurraldeko batez bestekoa baino gutxiago jaitsi da: Goierri eta Tolosaldea (%-7,5); Bidasoa Barrena (%-8,7), Deba Barrena (%-9,5) eta Urola-Kosta (%-10,0). Donostian %11,2 jaitsi da eta Deba Goienean %13,4.

Euskal AEko industria inbertsioa ia eskualde guztietan jaitsi zen 2009an, salbuespenak adierazgarri ez direlarik.

Arabako batez besteko jaitsiera %20,0. Errioxan eta Gorbeia inguruetan %50en gainetik. Bizkaian %25,4koa batez besteko jaitsiera; Durangaldea eta Enkarterrietan %50en gainetik, baina bi eskualde hauen pisua oso ezberdina da.

Gipuzkoan %41,7koa izan zen batez besteko jaitsiera. Donostialdean eta Urola-Kostan %50en gainetik; Deba Goienean, Bidasoa Barrenean eta Deba Barrenean %45 inguru; Goierri %22,5 eta Tolosaldean %17,6.

Langile okupatuak eta Balio erantsia faktoreen kostuetan, erauzketa eta manufaktura industrian, eskualdeka. 2009. Mila eurotan

	Pertsonal okupatua (kopurua)			Balio erantsi gordina, faktore-kostuan		
	2008	2009	Δ 09/08	2008	2009	Δ 09/08
Euskal AE	241.056	217.277	-9,9	15.375.866	11.928.556	-22,4
Araba / Álava	48.337	44.258	-8,4	3.337.377	2.541.425	-23,8
Arabako Ibarak/Valles Alaveses	2.101	1.956	-6,9	145.292	118.327	-18,6
Arabako Lautada/Llanada Alavesa	30.933	28.265	-8,6	1.950.492	1.505.244	-22,8
Arabako Mendialdea/Montaña Alavesa	416	391	-6,0	24.996	22.085	-11,6
Errioxa Arabarra/Rioja Alavesa	4.161	3.834	-7,9	374.239	331.336	-11,5
Gorbeia Inguruak/Estribac. del Gorbea	3.363	2.995	-10,9	233.874	153.292	-34,5
Kantauri Arabarra/Cantábrica Alavesa	7.363	6.817	-7,4	608.483	411.140	-32,4
Bizkaia	98.601	88.530	-10,2	6.045.312	4.740.470	-21,6
Arratia Nerbioi/Arratia-Nervión	4.800	4.396	-8,4	294.208	275.480	-6,4
Bilbo Handia/Gran Bilbao	55.548	49.875	-10,2	3.514.916	2.744.788	-21,9
Durangaldea/Duranguésado	22.366	19.667	-12,1	1.333.712	956.389	-28,3
Enkartzioak/Encartaciones	1.957	1.844	-5,8	117.467	97.944	-16,6
Gernika-Bermeo	4.152	3.758	-9,5	226.896	191.436	-15,6
Markina-Ondarroa	3.880	3.446	-11,2	195.642	165.338	-15,5
Plentzia-Mungia	5.898	5.544	-6,0	362.470	309.096	-14,7
Gipuzkoa	94.118	84.489	-10,2	5.993.177	4.646.661	-22,5
Bidasoa Beherea/Bajo Bidasoa	5.486	5.007	-8,7	302.396	251.283	-16,9
Deba Beherea/Bajo Deba	10.344	9.360	-9,5	583.465	455.701	-21,9
Deba Garaia/Alto Deba	18.502	16.024	-13,4	1.137.799	864.729	-24,0
Donostialdea/Donostia-San Sebastián	24.217	21.508	-11,2	1.451.797	1.139.975	-21,5
Goierri	14.487	13.405	-7,5	1.171.461	865.071	-26,2
Tolosaldea/Tolosa	8.558	7.918	-7,5	543.637	496.191	-8,7
Urola-Kostaldea/Urola Costa	12.524	11.267	-10,0	802.621	573.711	-28,5

Iturria: Eustat – Euskal AEko Industria Estatistika

Ohar metodologikoa:

Erabilitako sektORIZAZIOA Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionala (JESN-2009) da; eskualdeen arabera desagregazioan B (erauzketa) eta C (manufaktura) sekzioak bakarrik daude.

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Iosune Azula Lazkano

Tel.: +34-945-01 75 09 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko industria-estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko estatistika-estatistikari buruzko datu-bankua](#)